

Basamortuko bakardadea

Aitziber Irazoki Bengoetxea
Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak 2. saria
Lesakako Irain IP

Dena idorra ikusten dut,

Bizitzarik gabe.

Zein da toki hau?

Nola iritsi naiz hona?

Dena idorra ikusten dut

Bizitzarik gabe.

Zer ari naiz hemen?

Zer egin behar dut hemen?

Dena idorra ikusten dut

Bizitzarik gabe.

Hareaz beteta dago lurra

Ez zuhaitzik, ez landarerik, triste.

Dena idorra ikusten dut

Bizitzarik gabe.

Bakar-bakarrik nago,

Triste, ez nau inork laguntzen.

Dena idorra ikusten dut,

Bizitzarik gabe.

Agian nire ordua iritsi da?

Nire pentsamenduen barruan nago?

Basamortu batean nago

Ez dut ulertzen zergatik

Gero eta urduriago

Ez dudalako erantzunik aurkitzen.

Etsita nago basamortu honetan

Bakar-bakarrik nire bakardadean

Ez dut laguntzarik jaso

Gero ta tristeago nago.